

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

KIMIKA ETA POLIMEROAK MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Kimika eta Polimeroen unibertsitate masterrak industriaren arlo ezberdinetan oinarritzko ikerkuntza nola ikerkuntza aplikatua egiten ibilbide profesionala egin nahi duten ikasleak ditu helburu eta bereziki azpimarratzen du diziplinartekotasuna, oro har, egungo zientziaren eta, bereziki, kimikaren ezaugarri funtsezkoena baita.

Programa bi ildo berezitik osatzen dute, desberdinak baina osagarriak. Alde batetik, Polimeroen sintesia, karakterizazioa, ekoizpen industrial eta prozesatzearen ikuspegi osoa ematen da, eta beste gai berriago batzuk ere jorratzen dira, hala nola nanoteknologiaren inplikazioak polimeroen arloan, polimeroei lotutako ingurumen arazoak,

polimeroen aplikazioak Medikuntzan, eta abar. Eta beste alde batetik, trebakuntza sendoa eskaintzen da gizartearentzat eta ekonomia-arentzat munta handia duten arloetan, esaterako, ingurumena, katalisia, bioteknologia, kimika berdea, kimiometria eta konposatu organometalikoko alorretan. Denek dute zerikusia jasangarritasunaren kontzeptuarekin, gizarte modernoaren lehentasunezko helburuetako bat. Beraz, eskaintza zabal honi esker Masterrak malgutasun handia dauka, ikasleak prestakuntza programa bere interesen arabera egokitzeko.

Masterrak titulazio bikoitza ematen duten bi programatan parte hartzen du Bordeleko Unibertsitatearekin eta Strasbourgeko Unibertsitatearekin.

SARBIDEA

Unibertsitate titulazioa, ondokoekin lotura duena: Kimika, Ingeniaritza Kimikoa, Industria Kimika, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Ingurumen Zientziak. Batzorde Akademikoak baimenduko du sarbidea pareko titulazioetatik edo beste batzuetatik. Ikasleen ikerketarako bokazioa baloratuko da, baita akademi espedientea eta eskarmentu profesionala ere.

IRTEERA PROFESIONALAK

Doktorego tesia egiteaz gainera, master hau ikerkuntzari begira dagoelarik nagusiki, industria kimikoa, oro har, eta, bereziki, polimeroen aplikazio ezberdinen inguruan nola sektorearen gune teknologikoetan kokatzen dira irteera profesional nagusiak.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Irakaskuntza mota:

Hizkuntza:

Gutxi gorabeherako prezioa:

Egutegia:

Kimika Fakultatea (Donostia) .

Eskolan bertakoa.

Gaztelaniaz eta ingeleza.

2.150-2.350 euro.

Irailetik maiatzera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK/IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Hautazko
Gaiak

39 ECTS kreditu

Proiektuak /
Ikerketa-lanak

21 ECTS kreditu

Gutxira

60 ECTS kreditu

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Ikerketa zientifikorako sarrera eta oinarrizko lanabesak.
- Teknika instrumentaletarako osagarriak I: adsortzioa, x izpiak eta kromatografia.
- Polimeroen fisika: egituraren eta propietateen arteko erlazioa.
- Polimeroen sintesi aurreratua.
- Polimerizazio-erreakzioen ingeniarietza.
- Kimiometria aplikatua.
- Kalitatearen kudeaketa eta prebentzioa laborategian.
- Polimeroen prozesaketarako teknika aurreratuak eta ordenagailu bidezko simulazioa erabiliz egindako optimizazioa.
- Mikroprozesu berriak kimikan.
- Teknika instrumentaletarako osagarriak II. Mikroskopia elektronikoa eta Erresonantzia teknika.
- Polimeroen karakterizaziorako teknika aurreratuak.
- Polimeroen aplikazio industrialak.
- Biomaterial polimerikoak.
- Bioteknologiarako sarrera.
- Katalisia kimika finean.
- Mintz polimerikoak. Oinarriak eta aplikazioak.
- Plastikoen eta ingurumena.
- Kimika eta Teknologia berdea.
- Teknologia enpresa mundura.
- Nanopartikula polimerikoen sintesia.
- Gainazalak eta koloideak.
- Airearen kalitatea eta osasuna.

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Marian Iriarte Ormazabal

Tel: 943018188

Posta elektronikoa:

marian.iriarte@ehu.eus

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK

